**SEANCE DU CONSEIL MUNICIPAL DU 29 JANVIER 2018**

**2018ko URTARRILAREN 29ean egin HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA**

**Présents / Hor zirenak : 12**
Mmes BARBIER, ECHEVERTZ, ETCHART-DUHALDE, GARY, OXARANGO
MM. GASTAMBIDE, BARNETCHE, BISCAY, ETCHEBERRY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC.

**Absents excuses / Ezin etorria jakinarazia zutenak : 1**
Mme ETCHEVERRY

## ELECTIONS SENATORIALES 2017 : DESIGNATION DES DELEGUES ET DE LEURS SUPPLEANTS

L'élection des sénateurs aura lieu le 24 septembre 2017.
Le conseil municipal est invité à procéder à l'élection de 3 délégués et de 3 suppléants qui éliront les sénateurs. Les délégués et leurs suppléants sont élus sur la même liste, sans débat, à la représentation proportionnelle suivant la règle de la plus forte moyenne, sans panachage ni vote préférentiel.
Le bureau électoral est présidé par le maire et comprend les deux conseillers municipaux les plus âgés et les deux conseillers municipaux les plus jeunes.

**Résultats de l'élection**

a. Nombre de conseillers présents à l'appel n'ayant pas pris part au vote ....................................

b. Nombre de votants (enveloppes ou bulletins déposés) ..............................................................

c. Nombre de suffrages déclarés nuls par le bureau ...................................................................

d. Nombre de votes blancs.....................................

e. Nombre de suffrages exprimés [b – c – d] 11

Délégués titulaires : Arño Gastambide-Maite Etchart-Duhalde-Fred Hernandez 11 voix

Suppléants : Maite Oxarango-Samuel Biscay-Chantal Echevertz 11 voix

## 2017ko SENATUKO HAUTESKUNDEAK : ORDEZKARIEN ETA BEREN ORDEZKOEN IZENDAPENA

Senatarien hautaketa 2017ko irailaren 24an iraganen da.
Herriko kontseiluak senatariak hautatuko dituzten 3 ordezkari eta horien 3 ordezko izendatu behar ditu. Ordezkariak eta beren ordezkoak zerrenda berean hautatuak dira, eztabaidarik gabe, ordezkaritza proportzionalean bana besteko handienaren legearen arabera, boz zerrenden nahasterik gabe eta abantailazko bozik gabe.
Auzapeza bozketako bulegoko lehendakaria da. Auzapezaz gainera, bi herriko kontseilari zaharrenek eta bi herriko kontseilari gazteenek bulego hori osatzen dute.

**Hauteskundeko emaitzak**

a. Deian hor ziren eta bozketan parte hartu ez duten kontseilarien kopurua ......................................

b. Boz emaile kopurua (aurkeztu gutunak edo bozka paperak).........................................................

c. Bulegoak deklaratu dituen baliogabeko bozka kopurua.........................................................

d. Boz zurien kopurua ...............................................

e. Adierazitako boz kopurua [b – c – d] 11

Ordezkari titularrak: Arño Gastambide - Maite Etchart-Duhalde - Fred Hernandez 11 boz

Ordezkoak: Maite Oxarango - Samuel Biscay - Chantal Echevertz 11 boz

## 1 : TRAVAUX DE VOIRIE 2017-2020 – SIGNATURE ACCORD CADRE AVEC L'ENTREPRISE COLAS

Le Maire rappelle qu'une consultation a été lancée par groupement de commandes entre les Communes d'AYHERRE et de BRISCOUS selon une procédure adaptée ouverte passée en application des articles 4, 28 et 42 de l'Ordonnance n° 2015-899 du 23 juillet 2015 et des articles 27, 78 et 80 de son décret d'application n° 2016-360 du 25 mars 2016 afin de choisir l'entreprise qui réalisera les travaux de l'accord-

## 1 : 2017-2020ko BIDE OBRAK – COLAS ENPRESAREKIN EGIN HITZARMEN-ESPARRUAREN IZENPETZEA

Auzapez jaunak, 2015eko uztailaren 23ko 2015-899 zenbakidun ordenantzako 4, 28 eta 42. artikuluak aplikaturik pasatutako prozedura egokitu eta ireki baten arabera eta ordenantza horren 2016ko martxoaren 25eko 2016-360 zenbakidun aplikazio dekretuaren 27, 78 eta 80. artikuluen arabera, AIHERRAko eta BESKOITZEko herriek bien arteko eskaerak bateraturik kontsulta bat abiatu dutela oroitarazten du. Hala, 2017-

cadre à bons de commande de travaux de voirie pour la période 2017-2020. C'est la Commune de BRISCOUS, coordonnateur du groupement, qui a été chargée de lancer la consultation.

Le Maire rappelle que par délibération du 11 avril 2014, le Conseil Municipal lui a donné délégation pour signer les marchés publics d'un montant inférieur à 90 000 € HT.

La Commission d'Appel d'Offres, après avoir procédé à l'analyse des offres, propose d'attribuer l'accord-cadre à l'entreprise COLAS pour des montants minimum et maximum annuels qui s'élèvent respectivement à 0 € HT et 300 000 € HT, soit un montant maximum de 1 200 000 € HT, supérieur à celui de sa délégation générale précitée.

**Le Conseil Municipal**, après en avoir largement délibéré,

- **autorise** le Maire à signer l'accord-cadre à bons de commandes de travaux de voirie 2017-2020 avec l'entreprise COLAS pour des montants minimum et maximum annuels qui s'élèvent respectivement à 0 € HT et 300 000 € HT, soit un montant maximum de 1 200 000 € HT,
- **précise** que le Maire est autorisé à prendre toute décision et à signer toute pièce qui y serait relative, en ce compris les modifications des marchés publics dans la mesure où leurs montants cumulés demeurent en-deçà des crédits budgétaires affectés à cette opération.

2020 denboraldiko, hitzarmen-esparruko eskaera orriaren araberako bide obrak burutuko dituen enpresa hautatuko dute. Eskaeren bateratzea koordinatu duen BESKOITZEko herriak kontsulta abiatzeko ardura hartu du.

2014ko apirilaren 11ko erabakiaren ondorioz, Auzapez jaunak Herriko Kontseiluak zergarik gabeko 90 000 € baino gutiagoko merkatu publikoak izenpetzeko ordezkaritza eman diola oroitarazten du.

Eskaintzak aztertu ondoan, Eskaintza Deialdien Batzordeak hitzarmen-esparrua COLAS enpresari ematea proposatu du, urteko gutieneko eta gehienezko zergarik gabeko 0 eta 300 000 euroko prezioetan, hau da, gehienez zergarik gabeko 1 200 000 euroko zenbatekoan, gorago aipatu ordezkaritza orokorraren zenbatekoa baino gehiago.

**Herriko Kontseiluak**, eztabaidatu ondoan, honakoa deliberatzen du,

- Auzapez jauna urteko gutieneko eta gehienezko zergarik gabeko 0 eta 300 000 euroko prezioetan, hau da, gehienez zergarik gabeko 1 200 000 euroko zenbatekoan, eskaera orriaren araberako bide obrak burutuko dituen COLAS enpresarekin 2017-2020ko hitzarmen-esparrua izenpetzera **baimentzen du**,
- Auzapez jauna hitzarmen-esparruari dagokion erabaki oro hartzera eta dokumentu oro izenpetzera **baimentzen du**, horien artean merkatu publikoen aldaketak ere, metatutako zenbatekoak egitasmo honi esleitutako aurrekontu kredituak baino apalago egoten diren neurrian.

## 2 : REFECTION DE LA VOIRIE COMMUNALE PROGRAMME 2017- DEMANDE DE SUBVENTIONS AUPRES DU DEPARTEMENT

Le Maire expose au Conseil Municipal sa volonté de réaliser les travaux prévus au programme voirie 2017.

Il convient maintenant de solliciter les subventions du Département pour ce type d'opération. Il ajoute que le dossier de subvention est en cours d'élaboration.

**Le Conseil Municipal,**

Après avoir consulté le dossier du programme voirie, entendu le Maire dans ses explications complémentaires et en avoir largement délibéré,

- **approuve** le projet de travaux,

- **sollicite** les subventions du Département pour ce type d'opération,

- **précise** que le financement de cette opération pourrait être réalisé en complément sur fonds libres.

## 2 : HERRIKO BIDEEN KONPONTZEA 2017ko PROGRAMA – DEPARTAMENDUARI EGIN DIRU LAGUNTZA ESKAERA

2017ko bideen konpontzeko programan aurreikusitako obrak burutzeko xedea duela jakinarazten dio Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari.

Egitasmo horrentzat departamenduari diru laguntzak galdegitea adostu behar da orain. Diru laguntza txostena betetzen ari direla gehitzen du.

**Herriko kontseiluak,**

Bideen konpontze programaren txostena begiratu, Auzapezaren azalpen entzun eta eztabaidatu ondoan,

- bide obren proiektua **onartzen du**,

- egitasmo honendako departamenduari diru laguntzak **galdegiten dizkio**,

- egitasmo hau diru funts libre osagarriekin finantza daitekeela **zehazten du**.

## 3 : VENTE A L'OFFICE 64 DE L'HABITAT DES TERRAINS NECESSAIRES A LA REALISATION DU LOTISSEMENT COMMUNAL « ELIZALDIA »

Monsieur le Maire soumet à l'assemblée municipale le projet de promesse de vente par la Commune à l'Office 64 de l'Habitat des terrains nécessaires à la réalisation du lotissement communal, dénommé « Elizaldia », comprenant 12 lots à bâtir et un lot réservé à la construction d'un bâtiment de six logements sociaux.

Ces terrains cadastrés section B 960 et B 1055, pour une superficie de 12 849 m² seront cédés à l'Office 64 de l'Habitat moyennant le prix de 222 750.00 €, les frais et honoraires étant supportés par l'acquéreur.

**Le Conseil Municipal**, après en avoir délibéré,

- **approuve** la promesse de vente par la Commune à l'Office 64 de l'Habitat des terrains nécessaires à la réalisation du lotissement communal « Elizaldia »
- **autorise** M. le Maire à la signer et également à signer ultérieurement l'acte authentique et les pièces y afférentes.

## 3 : « ELIZALDIA » ETXE MULTZOAREN ERAIKITZEKO OFFICE 64 DE L'HABITAT ERAKUNDEARI LURREN SALTZEA

Herriko Etxeak Office 64 de l'Habitat erakundeari egin dion « Elizaldia » etxe multzoa eraikitzeko lurren salmenta hitzarmena aurkezten dio Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari. Eraikitzeko 12 etxe leku eta sei bizitegi sozialeko eraikin bat eraikitzeko etxe leku bat biltzen ditu.

12 849 m²ko lur horiek kadastran B 960 eta B 1055 eremuetan bilduak dira. Office 64 de l'Habitat erakundeari 222 750.00 euroko prezioan salduko zaizkio, gastuak eta ordainsariak eroslearen gain direlarik.

**Herriko Kontseiluak**, eztabaidatu ondoan,

« Elizaldia » herriko etxe multzoa eraikitzeko Herriko Etxeak Office 64 de l'Habitat erakundearekin egin lurren salmenta hitzarmena **onartzen du**
Auzapez jauna hitzarmen hori eta geroko egiazko agiria eta dagozkion dokumentuak izenpetzera **baimentzen du**.

## 4 : CONVENTION DE PARTENARIAT COMMUNE/OFFICE 64 DE L'HABITAT POUR LA REALISATION DE SIX LOGEMENTS SOCIAUX

Monsieur le Maire donne lecture de la convention de partenariat à passer entre la Commune et l'Office 64 de l'Habitat relatif à la construction de la résidence « Elizaldeberria » comprenant six logements sociaux.

La convention a pour objet de définir les engagements des deux parties.

Il est rappelé que la future résidence est située dans le lotissement « Elizaldia » et correspond au lot n° 13, pour une superficie de 1596 m².

Il souligne que la Commune participera à l'opération sous forme de subvention à hauteur de 3 % du prix de revient ; le prix de revient incluant la charge foncière, soit 59 850.00 €, les honoraires et les travaux TTC.

**Le Conseil Municipal**, après en avoir délibéré,

- **approuve** la convention de partenariat à passer entre la Commune et l'Office 64 de l'Habitat pour la construction de six logements sociaux,
- **autorise** M. le Maire à signer la dite convention.

## 4 : SEI BIZITEGI SOZIALEN EGITEKO HERRIKO ETXEAREN ETA OFFICE 64 DE L'HABITAT ERAKUNDEAREN ARTEKO PARTAIDETZA HITZARMENA

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari Herriko Etxeak Office 64 de l'Habitat erakundearekin « Elizaldeberria » sei bizitegi sozialen eraikina eraikitzeko egin beharreko partaidetza hitzarmena irakurtzen dio.

Hitzarmenak bi aldeen engaiamenduak zehazten ditu.

Bizitegi eraikin hori « Elizaldia » etxe multzoaren baitan kokatuko dela eta 1596 m²ko 13. etxe lekuari dagokiola oroitarazten du.

Herriko Etxeak egitasmoan diru laguntza moduan parte hartuko duela azpimarratzen du, kostaprezioaren %3an; kostaprezioak lur zergak, hau da, 59 850.00 €, ordainsariak eta obrak (zergak barne) barne biltzen ditu.

**Herriko Kontseiluak**, eztabaidatu ondoan,

Herriko Etxeak Office 64 de l'Habitat erakundearekin « Elizaldeberria » sei bizitegi sozialen eraikina eraikitzeko egin beharreko partaidetza hitzarmena **onartzen du**,
Auzapez jauna hitzarmen hori izenpetzera **baimentzen du**.

## 5 : CREATION EMPLOI D'AGENT TECHNIQUE PRINCIPAL DE 2EME CLASSE

Pour tenir compte de l'évolution des postes de travail et des missions assurées, le Maire propose au Conseil Municipal la création d'un emploi d'agent technique principal de 2ème classe pour assurer les missions d'agent d'entretien et de service.

Après avoir entendu le Maire dans ses explications complémentaires et après en avoir délibéré,

**Le Conseil Municipal**, après en avoir délibéré,

**- décide** la création, à compter du 1er août 2017, d'un emploi permanent à temps non complet (17.50 heures hebdomadaires) d'agent technique principal de 2ème classe,

- **précise** que les crédits suffisants sont prévus au budget de l'exercice.

## 5 : 2. MAILAKO LANGILE TEKNIKO NAGUSI BATEN ENPLEGU BATEN SORTZEA

Lanpostuen eta eginkizunen bilakaera kontuan hartzeko, Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari mantentze eta zerbitzu langile baten zereginak beteko dituen 2. mailako langile tekniko nagusi baten enplegua sortzea proposatzen dio.

Auzapez jaunaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu ondoan,

**Herriko Kontseiluak**,

**-** 2017ko abuztuaren 1etik goiti, 2. mailako langile tekniko nagusi baten zati denborako enplegu iraunkor baten sortzea **erabakitzen du** (astean 17.50 oren),

- finantza aldiko aurrekontuan enplegu horren sortzeko kreditu aski badela **zehazten du**.

## 6 : PARTICIPATION FINANCIERE 2017 A LA MISSION AVENIR JEUNES

Considérant les prestations et services de la Mission Avenir Jeunes après des jeunes de 16 à 25 ans,

**Le Conseil municipal**,

- **décide** le versement d'une participation financière de 1090 €, soit 1.1041 € par habitant, pour le fonctionnement de la structure pour l'année 2017.

## 6 : GAZTEEN ETORKIZUN MISIOAREN 2017KO DIRUZTATZEA

16 eta 25 urte arteko gazteen aldean Gazteen Etorkizun Misioak eskaintzen dituen zerbitzuak kontuan hartuz,

**Herriko Kontseiluak**,

- 2017 urtean egitura funtziona dadin 1090 euroko parte hartzea ematea **erabakitzen du**, hau da, biztanle bakoitzeko 1.1041 €.

## QUESTIONS DIVERSES

*Instruction du PLUI* : le travail de zonage et d'orientation d'aménagement débutera prochainement. Afin de respecter la réglementation et les préconisations du SCOT, les zones constructibles devront être sensiblement réduites.

*Commissions de travail de la CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque)* :
Six conseillers municipaux participeront aux commissions ci-après :

- Aménagement-Urbanisme-Foncier-Habitat: Mizel Etcheberry
- Développement économique : Frédéric Hernandez
- Tourisme : Samuel BISCAY
- Agriculture-montagne : Maite ETCHART DUHALDE
- Cycle de l'eau (eau potable-assainissement) : Arño GASTAMBIDE
- Ressources humaines : Maite OXARANGO

*Prochaine rentrée scolaire* : l'organisation du temps scolaire à 4.5 jours sera maintenue pour l'année 2017/2018. Un appel à candidatures pour un emploi d'agent polyvalent qui interviendrait à l'école a été lancé.

## OROTARIKO GAIAK

*hHTPren jarraibideak*: zonakatze eta antolamendu norabide lanak laster hasiko dira. Lurralde Koherentziarako Eskemaren (LKE) araudia eta gomendioak errespetatzeko, eremu eraikigarriak azkarki murriztu beharko dira.

*EHEren (Euskal Hirigune Elkargoaren) lan batzordeak*:
Herriko sei kontseilarik honako batzordeetan parte hartuko dute:

Antolamendua - Hirigintza - Lur zerga - Bizilekua: Mizel Etcheberry

Garapen ekonomikoa: Frédéric Hernandez

Turismoa: Samuel BISCAY

Laborantza - mendia: Maite ETCHART DUHALDE

Uraren zikloa (ur edangarria -saneamendua) : Arño GASTAMBIDE

Giza baliabideak: Maite OXARANGO

*Hurrengo eskola sartzea*: 2017-2018 ikasturtean 4.5 eguneko eskolaldiaren antolaketa atxikiko da. Eskolan esku hartuko lukeen gaitasun anitzeko langile enplegu batendako hautagaitza deialdi bat egin da.